

puntu a

116

ARTILEAREKIN
ZER EGIN?
EGOERA
IRAULTZEKO,
SAREA JOSTEN
DIHARDUTE





PUNTUA 116

2017-09-01 EGUBAKOITZA

ARGAZKIAREN EGILEA:
HDWOOL



AURKIBIDEA

- 4 **Bat-batean** Nekane Balluerka
- 6 **Irudiz** 70 metroko saltoa
- 8 **Mundutik** AEB: Idahok ezkututzen duena
- 10 **Erreportajea** Artilea, artzainen buruhauste
- 20 **Elkarrizketa** Luis Mari Ugarte, Lagun Aroko zuzendari nagusia
- 24 **Osasuna** Ahoko usain txarra
- 26 **Kirola** Ibilaldia: Urrexolatik Aitzulora
- 28 **Adituen esanetan** Jolasguneen webgunea
- 30 **Otorduan** Unzueta sagardotegia: parrila aukera zabala
- 32 **Moda** Aloha estiloa iritsi da
- 34 **Motorra** Argiztapenarekin argi
- 36 **Gure artistak** Ekaitz Zilarmendi aretxabaletarra
- 38 **Kultura** Judit Ruiz de Munain Bedia idazlea
- 40 **Liburu artean** *La analfabeta*
- 42 **Gure altxorrak** Eskoriatza: Eduardo Gorosarri
- 46 **Handitzen, handitzen** Jolasa: *Labirintoa*
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Eneko Barberena *Kultur adierazleak*
- 16 **Hainbat aburu** Inazio Arregi *Udako alderdi iluna*
- 16 **Eztabaida** Programazioa gaztetatik ikastearen garrantzia
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Gotzon Iparragirre *Sirakusako kaleetan*
- 18 **Talariatik** Amaia Agirre *Etorkizuneko janariak*
- 44 **Komunikazioa** Gorka Etxabe *'Employer Branding', estrategia berria*

IRITZIA NIRE TXANDA



**Eneko
Barberena Mondragon**

Kultur adierazleak

Uda musika jaialdien aroa da; orain arte, behintzat. Bankuek jarritako diruz eginiko musika jaialdiak –irudia dena omen egun– dira nagusi, baina badira ere eguraldi txarragatik bertan behera geratu eta elkartasun erauntsi bihurtzen diren ekimenak. Gorantz doan joera dirudi, garai bateko jazz jaialdi eta jaietako kontzertuetatik harago.

Dena den, kultura batez ere turismoaz lotzen den aro garaikide honetan, zaila da inbertsio pribatu eta publiko horrek utzitakoa neurtzea. Kolore guztietako politikariak ageri ohi dira, ia aho batez, inpaktu ekonomikoaz eta hotelen okupazioaz hitz egiten kultur ekimen bat amaitzean. Alegia, taberna, jatetxe eta hotelen datuak direla kultur inbertsioen eraginkortasuna neurtzeko adierazle nagusiak jende asistentziarekin batera.

Ez al da esanguratsua kultur egitasmo horiek ez izatea arloko adierazle propiorik? Esaterako, euskarazko kulturaren hedakunde eta adierazkortasunean ze eragin dute udako musika jaialdiak? Urtean zehar martxan diren kultur egitasmo edota ekipamenduen lanak badu islarik udako jaialdietan? Emakumezkoen presentzia bermatzeko dauden hutsuneak lantzeko orduan hartzen da kontuan mugimendu feminista edota instituzioen lana? Esaterako, Euskal Herrian diren musika eskola eta goi mailako musika ikasketa zentroen lanak badu segidarik udan? Ze eragin du bertako kultur ekosisteman udako jaialdien gero eta pisu nabarmenagoak? Ze lan baldintza dituzte musika jaialdietako langileak? Ze enpresa daude kultur programazio honen atzean eta ze inplikazio dute instituzioek?

Bada zer hausnartu kultur eremuan zentzurik zabalenean. Esango nuke, hemen doa nire apustua, Xiberuko pastoralak epaitzen direnean ez direla hasten tabernan saldu dituzten *orangeriak* kontatzetik. ■■■

**ZAILA DA INBERTSIO
PRIBATU ETA PUBLIKO
HORREK UTZITAKOA
NEURTZEA**

puntua

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa Marta Leturia
Maketazioa Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
harpidetza@goiena.eus
Logo Gordailua: SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



Gipuzkoako Foru Aldundia

Nekane Balluerka

BAT-BATEAN

Testua: Eneko Azurmendi / Argazkia: EHU

Aurtengo urtarrilean hartu du ordiziarrak Euskal Herriko Unibertsitateko errektore kargua. Unibertsitatea egoera onean dagoela uste du, baina aitortu du non hobetu badagoela.

Zortzi hilabete bete dituzu errektore. Karguari dagoeneko neurria hartuta? Neurria hartuta bai, nahi eta nahi ez. Oraindik martxa handirik ez diot hartu, baina neurria bai. Espero nuen lan gogorra izatea, eta horrela izaten ari da. Lan gogorra, ez sartzen ditudan orduengatik, baizik eta dakarren arduragatik. EHUk herri honetan, erakunde publiko bezala, garrantzi handia dauka belaunaldi berriak formatzean eta ezagutza sortzean eta transferitzean. Zer moduz nagoen galdetzen didatenean, zera erantzuten diet: “Lehen, okupatuta bizi nintzen; orain, berriz, okupatuta eta arduratuta”.

Zeri emango diozu lehentasuna proiektu berri honetan? Kolektibo bakoitzean, lehentasunak desberdinak dira. Irakasleei dagokienez, karrera akademikoa bultzatzea oso garrantzitsua da, eta saiakera guztiak egingo ditut ahalik eta jende gehiena egonkortzeko. Irakasle berriei ere babesa eman nahi diegu, tutorizazio programa batekin. Administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienez, gauza bera; lan kalitatea hobetu nahiko nuke, horretarako zenbait ekimen martxan jarritz. Lerro estrategiko handietan, ikerkuntzan, mundu mailan lehiakorragoak izatea gurako nuke eta irakaskuntzan, batetik, azken urteetako ikasleak, gaitasun teknikoez gain, zeharkako gaitasunetan ere prestatzea, eta, bestetik, euskaraz nahitaezkoak diren ahalik eta irakasgai gehienak martxan jartzea eta ingelesez gutxienez 30 kreditu martxan jartzea zentro bakoitzean.

Zein da zure lan dinamika? Nire egunerokoan bi eremu ezberdintzen ditut: batetik, nire taldearekin estrategia finkatzen dut, eta finkatutako estrategia horietan garrantzitsuak diren ekimenak bultzatzeko ahaleginak egiten ditugu. Horrez gain, saiatzen naiz komunitate unibertsitariora hurbiltzen, dekanoeekin eta ikertzaile nagusiekin batzarrak egiten, elkarlana beharrezkoa delako. Bestalde, gizarteari begira, agerraldi publikoak aditzera ematen saiatzen naiz;

EHUren ordezkari lana, azken batean. Eguneroko hamabi ordu ematen ditut, lan dinamika gogorra da. **Goirizelaiak hasitako bideari jarraipena ematen ari zara? Ala beste bide bat hasi du EHUk?** Nire ustez, oso lider eta errektore ona izan zen, gauza asko egin zituen ondo. Beraz, ondo egin zituen gauzetan jarraipena egingo diot, baina ez ginen gai izan beste gauza batzuk martxan jartzeko, eta horiek martxan jartzen saiatzea izango da helburua; horretan nago. **Euskarak ze leku du eta izango du Balluerkaren agintaldian?** Niretzat, euskara oso garrantzitsua da, eta bi maila bereizi behar dira: batetik, euskararen erabilera sustatu nahiko genuke ahalik eta gehien, eta horrek esan nahi du publikoari harrera zuzena egiten dieten lanpostuetan daudenei euskara maila eskatzea. Bestetik, eskaintza egongo litzateke. Gu gara euskaraz kreditu gehien ematen dituen unibertsitatea. Zenbait eremutan oraindik ez dugu lortu %100 euskalduntzea, Medikuntzan, adibidez, eta hor egin behar dugu lan. **EHUko lehen emakumezko errektorea zara. Zer esan gura du horrek zuretzat?** Bidea irekitzen ari naizela esan nahi du, eta hori inportantea da. Horrelako postuetan, normalean, gizonezkoak egoten dira, eta arrazoi ezberdinak daude horretarako. Arrazoi nagusia da gizonen inplikazioa oraindik ez dela nahikoa emakumezkoek tokatzen zaigunean seme-alabak izatea. Beraz, guztion inplikazioarekin, *altzairuzko sabaia* deitzen diodan hori apurtzeko gai izango gara. **Zein egoeratan dago EHU?** Ondo ikusten dut, baina autokonplazentzian erori gabe. Formazioari dagokionez, gure unibertsitateak ia gradu guztiak eskaintzen ditu, baina nahiko nituzke urrats gehiago egin, ingeniaritza biomedikoaren arloan, robotikaren arloan edota formazio dualaren eremuan, adibidez. Ondo gaude, baina hobekuntzarako tartea daukagu. **Finantziazioan igoera eskatu izan duzu. Non inbertituko zenuke diru hori?** Adibidez, nire ustez, oso garrantzitsua litzateke medikuntza fakultate berri bat izatea, batez ere, ospitaletatik hurbil, baina eraikuntza askotan behar ditugu inbertsioak. Horrez gain, ikertzaileen finantzazioa bermatzea ere inportantea da. Igoera baino, finantziazioaren egonkortasuna da kezkatzen nauena eta benetan eskatzen dudana. ■■■




70 metroko saltoa

IRUDIZ

Argazkia: Ander Errarte
Testua: Imanol Beloki

Latinoamerikan zazpi hilabetez bidaiatzen ibili ostean, Kolonbiako San Gil herrian adrenalina askatzeko aukera izan zuen Ander Errarte eskoriatzarrak. Ez da horrelako salto ikusgarri bat egiten duen lehenengo aldia; izan ere, paraxutean ere salto egindakoa da. Hala ere, Fonce ibaiko paraje ederrean, *bungee jumping* egiteko tarte hartu zuen, eta irudi ikusgarri hori atera zuen oroigarri gisa. 70 metroko garabi batetik ia-ia ibaiko urak ukitzearainoko saltoa egin zuen Ander Errartek. Errepikatzeko modukoa. ■■■



Idahok ezkutatzen duena

MUNDUTIK AEB



Jon Kortabarria Fritz
*Boisen (AEB) bizi den
oñatiarra*
Argazkiak: J.K.F.

Arrazoi batengatik deitzen diote AEBetako Idaho estatuari *The Gem State* edo Altxorren Estatua. Bai, patata ugari dago Idahon, eta bai, agian, amerikar gehiengoak patatarekin erlazionatuko du. Baina hori baino askoz ere gehiago ezkututzen du lurralde ikaragarri honek.

Hasteko, AEBak osatzen duten 51 estatuetatik, Alaskaren atzetik, natura eremu zabalena duena da. Idaho osatzen duten ibai, laku, mendi eta basoek amaiezinak dirudite. Paisaia ikaragarriak ditu, landaretzaz beteriko baso sendoetatik, desertu lehorretara. Tartean, Yellowstone famatuaren zati bat dago, eta Hells Canyon izeneko Ipar Ameriketako arroila sakonena. Bai, Grand Canyon famatua baino sakonagoa.

Mendikate ederrez josita dago Idaho. Eta mendikate hauen artean, inoiz aurkituko dituzun laku ederrenak ezkutatzen dira. Glaziarrek sorturiko lakuak dira gehiengoak, aurki daitekeen ur garbienaz sorturikoak, eta kolore izugarri biziak izaten dituzte. Sawtooth izeneko mendikatea izango da, agian, aisialdirako Idahoko leku ederrenetarikoa bat. 3.000 metro inguruko mendikate pila batez osaturik, eta tartean milaka laku garden daude.

Lurralde honek erakartzen duen animalia basatien barietate zabala ikaragarria da. Hartz, orein, mendiko ahuntz, otso, azeri, arrano eta beste hainbat animalia basatirekin elkartu zaitezke hauetako mendi ibilaldi batean.

Era berean, honek guztiak jendearen naturarekiko elkartasuna bultzatzen du, aire libreko aisialdi eta kirol arlo zabala eskainiz. Lehen aipatu bezala, mendiz gainezka dago, eta honek eskalada eta mendizaletasuna bultzatzen ditu. Kanpinera joateko dagoen joera ere ikaragarria da. Era

AEB-AK OSATZEN DUTEN 51 ESTATUETATIK, NATURA EREMU ZABALENA DUENA DA, ALASKAREN ATZETIK



guztietako kanpina egiten da; autoz edo trailerrez iristeko moduko lekuetatik, egun anitzeko ibilbide amaieran dauden leku magikoetara.

Uda denboran, rafting eta kayaking egitea oso modan dago. Batetik, ibaiek eskaintzen dituzten jaitsieren kalitateagatik, baina baita Idahon udan egin dezakeen bero jasanezinetik ihes egiteko ere. Maila guztietako jaitsierak daude. Ibai oso motel eta lasaietatik, jaitsi ezinezko ur indartsuetara. Mundu osotik

etortzen da jendea Idahoko ibaien kalitatea dastatzera.

Neguak gogor eta luzeak izan daitezke Idahoko eremu gehienetan. Baina horrek elur ugari esan nahi du, eta, beraz, eskiatzeko aukera. Hamazortzi eski estazio daude Idahon bertan, eta pistaz kanpoko kilometro kopuru amaiezinak.

Ehiza eta arrantza ere oso ospetsuak dira aisialdi munduan. Basoek eta mendiek ezkutatzen dituzten animalia eta ibai

gardenetako arrainak oso ugariak dira.

Idahoko beste altxorretako bat ur termikoak dira. Moldatutako igerilekuetatik, ezkutaturiko txoko sekretuetara, milaka ur termiko daude. Bai neguan eta baita udako gau hotzetan, lasaitasun ederra eskaintzen dute. Beraz, Idahotik igarotzeko asmotan bazaude, ez ahaztu egun osoan mendian ibili ostean, egun amaieran ur termiko hauetako bat aurkitzeaz. ■■■■

Rafting da udako ekintza nagusietako bat. Argazki txikian, Hells Canyon, AEBetako arroila sakonena.

Artilea, artzainen buruhauste

Atzera begira, ibarreko baserrietan –Euskal Herrikoetan bezala– hedaturik zegoen ardi latxaren artilea oihalgintzarako erabiltzearen tradizioa. Denborarekin, dena den, behera egin du lehengaiaren erabilerak, eta bestelako alternatibak bilatu behar izan dituzte baserritarrek. Testua: **Iker Oñate**. Argazkiak: **Goiena Taldea, HDwool eta protagonistek utzitakoak**.

Iraganera begira, esangura handia du ardi latxaren ileak; horren tradizioa oso errotua egon da Euskal Herriko baserrietan. Dena den, garaiak garai, irauliz doa panorama. Alegia, murriztuz doa artilea darabilten baserritarren kopurua; ondorioz, artzainek alternatibak aztertu behar izan dituzte azken urteetan. “Iraganean, baserritarrok asko erabiltzen genuen artilea, oihalgintzarako. Baina, denborarekin, beheraka doa tradizioaren praktika”, aitortu du Lur Pagoagak, Mitarte Garai baserriko artzainak. Bada, argia da erantzun beharrean duten galdera: zer egin ardi latxari mozturiko ilearekin?

Gaur egun arte, artzainek erosle partikularrei saldu izan diete artilea; ostean, partikularrek ilea euren produktuen lehengai gisa darabilten enpresa horietara bideratzen zuten baturiko artilea. Hala ere, gaur-gaurkoz, bestelakoa da egoera. Ardi latxaren artilearen prezioa behera doa, lehengai horretan interesa duten balizko erosleen –enpresen– kopurua murriztuz baitoa. “Gaur-gaurkoz, ardi latxaren ileak ia ez du eroslerik”, esan du Luis Angel Oiarbidek, artile saltzaile zegamarrak. Zehatz esanda, gaur arte, ibarreko artzainen artile erosleen artean zegoen Oiarbide. Ostean, ardi ilea lehengai gisa darabilten enpresei –tartean, moketa eta alfonbra ekoizleei–

saltzea zen haren asmoa; azken urteetan, ardi latxaren artilearen erabilera baztertzeko dihardute horiek. Bestetik, oihalgintzarako ere erabiltzen da tarteka; baina sektore horrek ez dio beste ardi arrazen artileari besteko estimu latxarenari, latza delako.

Laztasun horretan sakonduz, aipatu beharrekoa da Euskal Herriko klimarako ile egokia duela lurraldeko ardi arraza autoktonoak. “Errazago lehortzen da artile latza. Beraz, egokia da euri asko egiten duen eremuarentzako”, argitu du Ion Murgiondok, Etxezuri baserriko artzainak.

Irtenbidea lantzen

Arazoari irtenbidea eman nahirik, horren bueltako plangintza eraikitzen dihardu Debagoieneko Mankomunitateak, baserri bakoitzean ardi ile asko sortzen dela jakitun. “Baserritar ugari jarri ziren gurekin harremanetan, aurtan artile eroslerik ez zutela esanez. Beraz, ez zekiten zer egin euren ardien ilearekin”, argitu du Lander Arregik, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen eta Zabor Bilketa arduradunak.

Horri buelta emateko, beraz, artilea biltzeko zerbitzua jarri zuen martxan mankomunitateak; Deba Garaia Landa Garapen Elkartearen laguntza du jardun horretan. “Tristeza litzateke baturiko ardi ilea galtzea, erabilgarria baita”, gaineratu du Arregik. ■

ORAIN ARTEKO ARTILE EROSLEEN ARAZOA



Luis Angel Oiarbide, biltegiko artile zakuak atzean dituela.

“Aurreko urteetako artilea saldu arte, ezin dut gehiago erosi”

LUIS ANGEL OIARBIDE ARTILE EROSLEA

Azken urteetan egon da ibarreko ardien artilea erosteko interesa erakutsi duenik. Luis Angel Oiarbide zegamarra dago horien artean. Oiarbidek moketa eta alfonbra ekoizleei saldu guran erosten zuen artilea, baserritarren eta enpresa ekoizleen arteko zubi-lana eginez.

Bada, hogeitaz urte zeroatzen jardun horretan; duela bi urte, enpresa erosleak ardi ileaz ekoizturiko produktuak saltzen ez segitzeko asmoa jakinarazi zion arte. Hori horrela, Oiarbidek ekinbidea baztertzeko erabaki zuen –denbora batez, behintzat–.

“Finean, artilea erostea eta saltzea zen nire jarduna. Osteko prozesua enpresa eroslearen esku gelditzen zen”, dio Oiarbidek.

Besteak beste, ekoizpen prozesuan sartu aurretik, garbiketa –eta, kasu batzuetan, tindaketa– du beharrezko ardi ileak.

Oiarbideren hitzetan, bestetik, Espainiako Estatutik kanpo merkatu zabalagoa luke ardi latxaren ileak, baina “exijentzia handiekin”. Argitu duenez, “trataturiko artilea eskatzen dute atzerriko enpresa gehienek”.

“Oraindik aurreko urteetako artile asko dut pilaturik. Hori saldu arte, ezin dut gehiago

erosi”, azaldu du Oiarbidek. Beraz, etorkizunera begira, ez du proiektuari berrekitea baztertzeko. Hori bai, esan duenez, “baldintzak sortu behar dira horretarako”.

Balio ekonomikoa, behera
Esan bezala, beheraka doa ardi latxaren artilearen prezioa, erosle kopurua murrizta baita. “Ia-ia merkaturik gabe gelditu den lehengai da”, berretsi du Oiarbidek.

Horri lotuta, erreferentzia gisa erabil daitezkeen datuak dakartza gogora: “Duela hamar urte, 60 zentimoan zegoen ardi latxaren artile kilogramoa; duela bi urte, berriz, 20 zentimora jaitsia zen. Ezin uka beherakada nabarmena izan duela”.

OIARBIDEK ARDI LATXAREN
ARTILEA EROSTOKO ZEREGINA
BAZTERTZEA ERABAKI ZUEN
DUELA BI URTE



Artzaina, artaldea eramaten, txakurraren laguntzarekin.

Bilketa zerbitzua, artilearen arazoari irtenbidea eman guran

Arazoari irtenbidea emateko ahaleginean, ardi latxaren ilea batzeko egitasmoa abiatu zuen Debagoieneko Mankomunitateak uztailean; Deba Garaia Landa Garapen Elkartearen laguntza izan zuen jardun horretan. “Baserritarren eskaerari erantzuna eman guran ekin genion proiektuari”, dio Lander Arregik, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen eta Zabor Bilketa arduradunak. Esan beharrekoa da, orain arte, baserritar horiei erosle partikularrak joan izan zaizkiela artilea eskuratu guran.

Dena den, beheraka doa erosle partikularren interesa; batez ere, gero eta zailagoa zaielako eskuraturiko artilea saltzea. “Kalitate aldetik, ardi latxaren ilea ez da oso ona. Beraz, egun, oihalgintzan ez da oso erabilia”, argitu du Arregik. Balizko erosle kopurua murrizten du horrek.

Egoera horretan, ba, euren ardien ilearekin zer egin jakin gabe gelditu ziren artzain asko. “Artile ugari sortzen da ardiei ilea moztean. Saldu ezean, errefusa

gisa amaitzeko arriskua dago. Beraz, hori ekidin guran, irtenbidea eskaini beharra zegoen ezinbestean”, argitu du Arregik.

Debabarrenekoa, eredu
Egitasmoa bera ez da burugabea egindakoa: Debabarreneko eredu izan dute oinarri. “Baliagarri izan zaigu bertako erakundearen esperientzia”, azaldu du Arregik. Esaterako, horien bidez jarri ziren harremanetan bildutako artilea jaso zuen enpresarekin; zehatz esanda,

Mutrikun dagoen Recuperados Isasi SL enpresaren ardura da osteko prozesua kudeatzea –artilea garbitzera bidaltzea eta enpresa ekoizleei saltzea, hain zuzen–.

Bestetik, aipatu beharra dago artile bilketarena ez dela guztiz definituriko egitasmoa; datorren urtera begira dihardute, bilketa osteko prozesuan sakontzen. “Batu ondorengo kudeaketarako bestelako alternatibak bilatzen dihardugu”, dio Arregik. Tartean, Gipuzkoako Diputazioarekin dihardute harremanean, “aukera



Artilea batu osteko garbiketa egiten, Ingalaterrako fabrian.

balego, lurraldeko baserriak bilduko lituzkeen zerbitzu bateratua adosteko”. Aurreikuspenen arabera, datorren urtean 350 eta 400 tona artile jasoko lirateke Gipuzkoan.

Deba Garaia zeregina

Esan bezala, Deba Garaia Landa Garapen Elkartearen laguntzarekin jardun zuen Debagoieneko Mankomunitateak; zehatz esanda, artilearen bilketa kudeatzeaz arduratu zen Deba Garaia. Beraz, besteak beste, baserritarrekin harremanetan jartzea, bilketa mapa diseinatzea eta jasotako artilea Recuperados Isasi SL enpresara eramatea –bildu ostean, noski– izan zen elkartearen zeregina.

Egitasmoaren arrakastaz mintzo, bestetik, Agurtzane Diaz Deba Garaia kidearen esanetan, “aurreikusitakoa baino artile gehiago jaso zen”. Erreferentzia gisa, lehen egunean –Bergara eta Oñatin– bi joan-etorri egin behar izan zituen bilketa kamioiak; zazpi tona eramateko edukiera du ibilgailuak. “Tartean, aurreko urtetik gorderiko artilea zegoen; alegia, jasotako guztia ez zen artzainek azken urtean pilatutakoa”, argitu du Diazek.

Artilea, lehor halabeharrez
Berrerabili ahal izateko, artileak lehor egon behar du ezinbestean; bestela, errefus bihurtuko litzateke. Horrenbestez, eguraldiak badu zeresanik bilketa prozesuan; eguraldi txarra eginez gero, bilketa plangintza moldatu beharra legoke –edo atzeratu–.

Alegia, baserritarrek aurreko egunean eraman behar izan zuten artilea bilketa gunera. Euria egin izan balu, beraz, busti egingo zen artilea; eta, esan



Artile biltegia, zakuz beteta.

bezala, ezingo zen berrerabili. “Zorionez, ez zuen euririk egin”, dio Diazek.

Bildu ostekoa

Aurten, Mutrikuko Recuperados Isasi SL enpresak jaso du ibarrean baturiko ardi ilea. “Beti ibili izan naiz baserriaren bueltan sortzen diren artilea, plastiko berrerabilgarriak eta bestelakoak batzen”, azaldu du Iñigo Arrizabalagak, enpresaren jabeak. Recuperados Isasi SL sortu zuen arte, erosle partikular moduan ziharduen.

Bildu ostean, artileak tratamendu berezia du beharrezko. “Garbitu beharra

dago; eta, kasu batzuetan, tindatu ere egiten da. Artile zuria preziatuagoa da”, argitu du Arrizabalagak. Hala, batu ostean, garbiketa enpresara bidaltzea dagokio; hemen inguruan, Salamancan eta Portugalen daude halakoak.

“Ekoizleek beste ardi arraza batzuen artilea darabilte lehenik; eta, hori bukatzean, latxarena eskatzen dute”, dio Arrizabalagak. Hala, azarora bitartean izan ohi du artilea biltegian gordeta. “Ekoizleek garai horretan eskatzen dute”, gaineratu du.

Dena den, aitortu duenez, artilearen salmentak ez du diru askorik ematen: “Finean, baserritarrei zerbitzua eskaintzeko egiten dut, tokia izan badut eta”. Aurten beste urte batzuetan baino gehiago batzea aurreikusten du: kalkuluen arabera, 40 eta 50 tona artean batuko ditu.

DATORREN URTERA BEGIRA
DIHARDUTE EGITASMOAREN
BULTZATZAILEEK, BILDU OSTEKO
PROZESUAN SAKONTZEN

HAINBAT ABURU



**Inazio
Arregi**

Udako alderdi iluna

Sexu erasoak eta emakumeek gogoz kontra jasandako ukituak albiste bihurtu dira uda honetan. Iruñeak lekuko lotsagarri hau eman die Zarautzi, Sopelari, Eibarri eta beste hainbat herriri, eta jai-giroan egin diren salaketak nonahi ugaritu dira.

Sexu erasoak %85 gehitu zirela sei hilabetetan zioen Gipuzkoako egunkari baten titularrak uztailen. Datua ikaragarria da, eta instituzioek, hainbat komunikabidek eta komunikabideetako aurkezle izarrek igorritako kontrako mezuek ezer gutxirako balio

izan dutela baino ezin izan dugu baliozkotu.

Agian, mezu horien bidez tolerantzia maila txikiagotu egin da eta salaketak errazago jarri dira, erasoak jasan dutenek beren burua babestuago ikusi dutelako. Nahiago dut hori pentsatzea egindako ahalegin guztiak antzuak izanik kontrako ondorioa eragin dutela baino. Hala bada ere, ezin dugu jaietan parte hartzen duen edota kalean dabilen populazioaren erdia izan daitekeela oraindik ere bere borondatearen aurka egindako eraso baten biktima.

Populazioaren erdiari ez bazaio ziurtatzen kalean aske eta erasoak jasateko arriskurik gabe ibiltzeko eskubidea, iragazki batek baino zulo gehiago du sistema garantista honek.

Pertsona bakar bati, emakume bakar bati kalean edo nonahi aske ibiltzeko eta ezetz esateko askatasuna urratu dakioken bitartean, lana erruz egin beharra izango dugu hezkuntza-sistematik, familia, komunikabide, administrazio eta estamentu guztietatik. Eragin, ez emakumeei bakarrik, guztioi eragiten baitigu arazoak. ■

EZTABAIDA PROGRAMAZIOA GAZTETATIK IKASTEAREN GARRANTZIA

Ordenagailuak programatzea zeharkako ikasgai bihurtu da Finlandian, Norvegian, Kanadan, Ingalaterran eta AEBetan. Garrantzitsua da gatzetatik jakintza horiek eskuratzea?



NEREA ATXAGA
KODE ESKOLAKO
ZUZENDARIA

“Ikaragarritzko garrantzia du. Nahiz eta ikusten dugun oso lotuta daudela teknologiar, konturatzen gara ez dakitela ordenagailuek eta programatutako gailuek daukaten lengoia eta logika. Euren etorkizuneko gizarte teknologikoak eta *big data*-ren gizarteak eskatuko du alfabetizazio bat kodearen hizkuntzan. Horrek ekarriko die ekintzaileagoak izatea eta bestelako gaitasun eta trebezia batzuk ere barneratzea”.



MIKEL AGIRRE
IRAKASLEA

“Bai. Programazioaren bitartez ez duzu ikasten webguneak edo bideo jokoak egiten; ikasten duzu arazoak kudeatzeko logika bat, zein ekintzak daukaten lehentasun handiagoa edo txikiagoa... Horrelako logikak lantzen dira, eta horiek, hainbat azterketak ondorioztatu duten moduan, eguneroko bizitzan oso baliagarriak dira haurren garapenerako, ikasketetarako edo jarduera profesionalerako umeak zaharragoak direnerako”.

XIXILI

Helena Azkarragaurizar



ERREMATEA



**Gotzon
Iparragirre**

Sirakusako kaleetan

Duela gutxi, Siziliako Sirakusan ibiltzeko aukera izan dut. Ortiggia erromantikoa pasean genbiltzala, kale ertz baten eskusoinuaz jotako doinu malenkoniatsu bat iltzatu zitzaidan, eta izkinan gizontxo bat ikusi nuen. Erreparatu nionean, bere aurrean kanario estiloko txoritxo bat zegoen gaintxo baten, lotu gabe, aske antzean.

Tarteka, bere jabeari begiraten zion, saltoka-saltoka, jiratu, eta atzera, buelta hartzen zuen. Bera eta txoria. Maitasunezko barruti partekatua, miresmena, harrotasuna, sinbiosi enpatikoa, kariñoa erakutsiz elkarri.

Hegazkinean bueltan, ondoko jarlekuan, neska gazte polit bat. Tripulazioarekin zuen harremanagatik, asko ibilia nonbait. Jaistean, gurasoak zain. Amak begiratu, alabak amari, eta hor ere, Sirakusako barruti bera. “Ai, amaxi”, alabak, besarkada luzea, beroa. Aita, baldar antzean, barrutian sartu nahi eta ezinik.

Garraio zintak ezkutatzera ninderaman uean, bigarrenkoz, “ai, amaxi” aditu nuen. Nik, berriz, nire baitarako, Sirakusako txoria gogoan, “ai, aitatxi!”. ■



ROSALIA AMOZARRAIN
GURASOA

“Interesgarria iruditzen zait programazioa umetatik irakastea. Txikitatik ikasten dute ordenagailuak eta horrelakoak erabiltzen eta gaur egun ia gauza guztietarako dago teknologiaren beharra. Jaiotzen direnetik dituzte gailuak eskuetan eta esango nuke horien erabilerak geroz eta beldur txikiagoa ematen diela. Askotan, gurasook baino gehiago jakiten dute seme-alabek eta garrantzitsua da horiek ezagutzea eta nola erabili ikastea”.



MAIDER ETXANIZ
GAZTERIA TEKNIKARIA

“Gaur egun, kultura digitala gure egunerokotasunean dago eta umeen artean ere hori bultzatu behar dela esango nuke. Izan ere, horri buruzko jakintza jasotzea pizgarria izan daiteke umeak motibatzen ikasteko edota euren sormena lantzeko. Kultura digitaleko tresnak erabiliko dituzte etorkizunean ere; ordenagailuak eta bestelako gailuak eta horiei buruzkoak ikasteko eta beldurak kentzeko baliagarria izan daiteke programazioan sakontzea”.



Amaia Agirre
Elikagaien teknologoa eta nutrizionista

Etorkizuneko janariak

Zelan elikatuko gara etorkizunean? Zer eta non jango dugu? Janariak aukeratzeko orduan osasun irizpideak hartuko ditugu kontuan? Horrelako galderak erantzuten saiatzen dira hainbat entitate, elikatzeko orduan tendentziak identifikatuz eta elikagai industriari tresnak emanez, kontsumitzaileen desioei aurreratzeko. *Mintel* txostena da horietako bat.

Eta zer diote azkeneko tendentzietako txosten horiek? Ematen du osasunarekin kontzientzia handiagoa dagoela, kontsumitzaileak produktu naturalak nahi dituela, ingurumenarekin kontzientzia handiagoarekin eta elikagaietan plazera eta entretenimendua bilatuz. Gaur egun bizimodu mota urbanoak sortzen dituen beharretara egongo dira egokituta etorkizuneko jakiak.

Osasunez elikatzeko orduan, barazkiak eta landareak hartzen dira kontuan, eta veganismoarekin lotura duen guztiak aurrera egingo du. Osasungarri bai, baina plazera ere topatzen dugu, eta hor kokatzen dira %0ko koipedun edo azukredun produktuak eta barazkiekin eta landareekin sortutako snackak.

Elikagaiak prestatzen, jasotzen eta kontsumitzen pasatzen dugun denbora ere kritikoa izaten da produktuak erosteko erabakietan. Azkeneko urtean *On-the-Go* eta *In-the air* produktuek %54ko igoera izan dute. Kontsumitzaileak produktu fresko eta nutritiboak eta poliki prestatutako elikagaiak modu azkarrean kontsumitu nahi ditu. Produktuen historia ezagutzea garrantzitsua da, eta, iraganarekin eta

etxekotasunarekin lotutakoak izaten badira, hobeto.

Elikagai berriak ateratzeko orduan, industriak ikusmiran dituen kontsumitzaile taldeak argi eta garbi identifikaturik daude: 65 urtetik gorakoak, seniorrak eta milurteko bukaera aurretik jaiotakoak edo millennialsak, hain zuzen ere.

Osasunaren Mundu Erakundearen datuen arabera (OME), 2000 eta 2050 urteen artean 60 urtetik gorakoak bikoiztu egingo dira, %11tik %22ra pasatuz. Balio absolutuetan, 2050ean, 2.000 milioi pertsona izango dira. Profil seniorra zahartze aktiboan eta handitze osasungarrian dago kokaturik. Hirugarren adineko pertsonak aktiboak eta indartsuak izateagatik bereizten dira, gogor lan egiten dute eta euren osasun fisiko eta mentala

arduratzen zaie. Aurrerago, gaur egun, laugarren edadeari buruz hitz egin dezakegu, non zailtasun fisikoak agertzen diren; mastekatzeko eta usain eta zapoak desberdintzeko zailtasunak, ikusmenaren galera, artritis, osteoporosia eta beste gaixotasun neurodegeneratibo batzuk agertzen dira. Elikagai funtzionalak, dieta pertsonalizatuak eta erabiltzeko ontzi errazak *elderly-friendly* kanaletatik lortutakoak, horiek dira seniorretan identifikatu diren tendentziak. Teknologia berriak eta digitalizazioa protagonistak izango dira; adibidez, 3D inprimagailuekin, egokitutako testurak dituzten jakiak lortzen ari gara jadanik.

Milurteko bukaera aurretik jaiotakoek ezaugarri berezi batzuk dituzte, eta berrikuntza

tendentzia zehatz batzuk baldintzatzen dituzte. Horien artean, iraunkortasuna eta kontsumo etikoa dira nabarmen, eta *zero hondakin* sortzearen tendentzia potentziatzen dutenak. Euren beste ezaugarri batzuk *premium* produktuekiko zaletasuna eta dependentzia teknologikoa dira. Bertoko produktuak asko apreziatzen dituzte eta ez zaizkie aurrez prestatutako jakiak gustatzen, erosten dutena ikusi egin nahi baitute, osagaiak barne.

Teknologia berriek ere eragina izango dute, bezeroarekin batera berritzeko tresna bihurtuz eta komunikazioa erraztuz. Erosketa kanal berriei egokitutako produktuak sortuko dira eta *big data*-ren bitartez eskaintza pertsonalizatuak egingo dizkigute.

Gertu zaude? ██████████

PRODUKTUEN HISTORIA EZAGUTZEA GARRANTZITSUA DA

“Aurreko krisietatik ikasita, erabaki garrantzitsuak hartu behar izan ditugu”

LUIS MARI UGARTE LAGUN AROKO ZUZENDARI NAGUSIA

Mende erdia du egin Lagun Arok. Askorako aukera eskaintzen du 50 urteko ibilbideak; besteak beste, aldaketa asko egin behar izan dituzte, garaian garaira egokituz. Egungo krisi ekonomikoak ere badu eraginik korporazioaren jardunean; beraz, aurrera begira segitzen dute, etor daitekeenaren esperoan. Testua: **Iker Oñate**. Argazkiak: **Xabi Urzelai**.

Gorabehera askorako aukerak uzten ditu 50 urteko ibilbideak; are gehiago, enpresen bueltako egituraz mintzo bagara. Horren adierazle da Lagun Aro. Kooperatibetako langileei eta euren senideei babes soziala eskaini nahian sortu zen aipaturiko korporazioa; beraz, ezin uka krisi ekonomikoak izan duela eraginik bere funtzionamenduan. Bada, horren inguruan mintzo da Lagun Aroko zuzendari nagusi Luis Mari Ugarte (Bergara, 1963). Bestetik, gaur-gaurkoz, aurrera begira dihardu korporazioak, kooperatiben bueltan ager daitezkeen krisi egoerei buelta emateko moduko oinarria eraiki nahirik.

Lagun Aroko zuzendari nagusia zara.


2001a ezkerro daroat Lagun Aron. Aurretik, dena den, banuen loturarik korporazioarekin: kooperatibetan egiten nuen lan. Lagun Aron sartzeko aukera izan nuenean, ez nuen bitan pentsatu, baiezkoa eman nuen; bertako hainbat kide ere ezagutzen nituen garai hartan. Behin korporazioko kide izanda, kargu ezberdinak izan ditut; tartean, idazkaritza teknikoaren eta orokorraren arduradun izan naiz. Bestetik, 2010ean izendatu ninduten Lagun Aroko zuzendari nagusi.

Eta, zer da Lagun Aro?

Lagun Aro kooperatibisten Gizarte Segurantzako sistema dela esango nuke. Argitu beharra dago, hala ere, kide guztiak gaudela sistema publikoan; beraz, sistema horren osagarri litzateke. Finean, oinarritzko zerbitzuak eskaintzen ditu. Osasunaren alorreko sostengua, babes soziala, gaixotasunak eragindako baliaezintasuna dutenentzat laguntza eta erretiroa hartu osteko pentsioa dira horien artean. Laburbilduz, Lagun Arok babes soziala eskainiko lieke kooperatibetako kideei –eta euren senideei–.

Korporazioak sistema publikoarekin duen harreman horren azalpenean sakontzerik?

Sistema publikoaren erregimen orokorrekin ematen duten babesa eman gura dugu bien artean, horrez gaindi joan gabe. Finean, autonomo gisa dihardugu; ondorioz, kotizazio sistema berezia dugu. Hainbat berezitasun aurki daitezke gure kudeaketa ereduan. Batetik, kooperatibetako langileek Lagun Arori egiten diote pentsioen finantzaziorako ekarpen ekonomikoa; beraz, korporazioak berak kudeatzen du pentsio sistema. Bestetik, enplegu laguntzarako sistema ere gure gain dugu hartuta, horren kudeaketa ez baitago sistema autonomoan. Aipatu beharrekoa da, bestalde, aldi baterako ezintasunaren alorra; kasu horretan ere gure gain baitago kudeaketa, Gizarte Segurantzarekin sinaturiko akordioa tarteko. Hori guztia esanda, ba,



sistema publikoak eskaintzen dituen prestazioen ordezkatzailerik osagarri diren zerbitzuak jartzen ditugu kooperatibetako langileen esku.

Eskaintzez mintzo, aseguru etxea ere sortu zenuten.

Hala da. Lagun Aro Aseguruak sortu genuen, Laboral Kutxa banketxearekin elkarlanean. Aseguru etxea merkatuan zegoen; ondorioz, lotura hertsia goa zuen Laboral Kutxarekin gurekin baino; gu ez baikaude merkatuan. Hori horrela, 2011n gure parte-hartzea saltzea erabaki genuen, aseguru etxeak harturiko bidea ikusirik; bada, esan bezala, geroago eta estuagoa zen banketxearen eta aseguru etxearen arteko harremana. Gauzak horrela, merkatuak eraginda, aldatzen zihon aseguru etxearen izaera; finean, merkatuaren eskaeretara egokitu beharra izan zuen. Bide horretan, orain, integrazio prozesuan daude murgildurik bi entitateak; Laboral Kutxaren egoitzetan daude Lagun Aro Aseguruen bulegoak, esaterako.

50 urte bete dituzue. Ez da bide laburra...

Ez. Eta askorako aukera eskaini dute urte horiek guztiek, erabaki ugari hartu behar izan baitira. Oinarriaz mintzo, esan beharrekoa da behar baten eraginez jaio zela Lagun Aro. Kooperatibetako langileak egituratik kanpo utzi gura izan zituen Gizarte Segurantzak. Hori horrela, gaurko moduko egitura bat sortzeko beharra ikusi zuten hainbatek, printzipio solidoekin. Osteko urteetan, kooperatibisten eta mutualisten babesari esker, mantendu egin da; betiere, garaian garaira egokituz eta zerbitzu profesionala emanez. Oro har, ibilbide positiboa izan du; eta esan daiteke kooperatibek eta kooperatibistek estimu handia diotela egiturari.

Orduan, Gizarte Segurantzatik kanpo gelditu zineten?

1959an agertu zen Gizarte Segurantzatik kanpo gelditzearen mehatxua; kooperatibistak, langileak beharrean, kooperatiben jabeak zirela ulertu zuten, eta, beraz, ezin zituztela sistema publikoaren prestazioak aprobetxatu. Momentu hartan kooperatiba gutxi zeuden; 400 bazkide, gutxi gorabehera. Beraz, aurre egin behar zitzaion drama sozialari. Dena den, ostean, Gizarte Segurantzaz sartu ginen: 1967an segurantza publikoak sistema birplanteatu zuenean. Urte hartan, sistema publikora itzultzera behartu gintuzten; orduan sortu zen gaur egun indarrean dagoen sistema mistoa.

Horrez gain, zein momentu historiko azpimarratuko zenituzke?

Batetik, 1983ak esangura handia du gure historian; petrolioaren krisia izan zen garai hartan. Momentu hartan, ibarreko enpresen egoera kaskartu egin zen nabarmen. Eta birkokatze prozesuari ekin zitzaion. Gero, testuinguru horretan, langabeentzat prestazioak sortu genituen. Bestetik, ezin aipatu gabe utzi 2008an gertaturikoa. Ordura arte, osasun laguntzarako

sistema bat genuen, publikoa ordezkatzeko zuena.

Bada, urte hartan osasun sistema publikoan integratu ginen; sistema pribatua publikoaren osagarri bezala mantenduz. Horiez gain, 2010ean, aldaketa sakona egin genuen pentsio sisteman. Azkena, 2013an, Fagor Etxetresnak enpresaren itxiera; arazo soziala eragin zuen horrek. Ezin uka beldurturik geundela, baina egoerari aurre egiten jakin izan genuen. Gauzak horrela, 2013 hartan aurreikusirikoa baino hobea da egungo egoera.

Ibilbideak ibilbide, ospakizun urtea izan duzue aurtengoa.

Hala da. Aurtun, ospakizun hitzordu bereziak antolatu ditugu. Horien artean esanguratsuen uztailaren 7an antolaturiko ekitaldia litzateke. Egun hartan, erakunde publikoetako eta kooperatibetako ordezkarien bisita izan genuen. Oso ekitaldi hunkigarria izan zen. Tartean, Lagun Aroren historian esku hartu duten hainbat pertsona omendu genituen.

Bide-kideak omendu zenituzten, beraz.

Lagun Aroren ibilbidean esangura handia izan duten hamar pertsona omendu genituen; zortzi etorri ziren ekitaldira. Horiez gain, aipamen berezia jaso zuten Jose Ayalak eta Jose Maria Arizmendiarririk. Oro har, Lagun Aroko lehendakariak, zuzendariak eta kontseilu errektoreko ordezkariak –esaterako, kargu horretan 30 urte inguru jardun zutenak– omendu genituen. Bada, Lagun Aro familia osoaren izenean, aitorpena eskaini gura izan genien haiei.

Ekitaldi hartako hizketaldian, garai batean Lagun Aro “hiltzat” eman zela esan zenuen.

Fagor Etxetresnen itxierarekin, Lagun Aroz gain, kooperatibismoaren bueltako egitura hiltzat eman zuten zenbaitek, bata bestearen atzetik eroriko zirelakoan. Guk, dena den, bagenekien Lagun Arok oinarri sendoa zuela. Gainera, kooperatibek diru-iturriak indartzeko neurriak onartuko zituztela aurreikusten genuen; hala gertatu zen. Hor daude emaitzak: langile batzuek behin betiko irtenbidea topatu dute.

Momentu kritiko asko jasan ditu Lagun Arok?

Orokorrean, esan beharra dago ibilbide oso ona izan duela. Baina, noski, momentu kritikoak ere izan dira 50 urte hauetan. Esaterako, erabaki garrantzitsuak hartu behar izan ditugu; aurreko krisietatik ikasita. Krisia etorri aurretik, gainera, horri aurre egiteko prestatzen jardun dugu; hori horrela, aurreko bolada onek osteko txarrak leundu dituzte, nolabait.

Garaian garaiko egokitzei dagokienez, krisi ekonomikoak izan du eraginik Lagun Aroren jardunean?

Duda barik. Krisi ekonomiko gogorra eta luzea da egungoa; eta, nola ez, gure jardura baldintzatu du horrek. Besteak beste, enplegu laguntzarako



“SISTEMA PUBLIKOAREN ERREGIMENEGI EMATEN DUTEN BABESA EMAN GURA DUGU”

“AURREKO BOLADA ONEK OSTEKO TXARRAK LEUNDU DITUZTE, NOLABAIT”

“KRISIA HASI ZENETIK, 3.700 PERTSONAK JASO DUTE LAGUN AROREN LAGUNTZA”

21. orrialdeko eta orrialde honetako argazkietan, Lagun Aroko zuzendari nagusi Luis Mari Ugarte ageri da.

prestazioak ematen ditugu; alor horretan ez dugu sistema publikoaren babesik; beraz, kooperatiben bueltan arazoak izatekotan, geure esku dago egoeraren kudeaketa. Eskerrak 2008ko hasieran oinarri ekonomiko indartsua genuela; 70 milioi genituen. Bada, horrekin biziraun genuen krisiaren hasieran. Dena den, oinarri hori ahultzen zihon. **Eta, 2013an, Fagor Etxetresnen itxiera.** Urte hartan etorri zen krisiaren gailurra. Egun batetik bestera, ia 2.000 pertsona gelditu ziren lan barik. Garai gogorak izan ziren haiek eta erabaki garrantzitsuak hartu behar izan genituen; ahalik eta denbora laburrenean, noski. Besteak beste, batzar nagusi berezia deitu genuen, hainbat erabaki hartzeko. Bide horretan, batetik, kooperatiben kuota igotzea adostu genuen, diru-sarrerak indartzeko beharra baitzegoen. Esan beharrekoa da kooperatibek aho batez onartu zutela proposamena; ez zen nolana hiko erabakia, kooperatibek ere une gogorra bizi baitzuten. Bestetik, prestazio batzuk hobetu genituen; hainbaten artean, erretiro aurreratuarena. Ordura arte, kooperatibek eurek osatzen zuten aipaturiko prestazioa, baina gastu horri aurre egiteko zailtasunak zituzten. Egokitze horiekin –eta bazkideen jarrerarekin–, ba, urrats handiak egin genituen epe laburrean. Fagor Etxetresnak itxetan, 300 bazkide inguru zeuden birkokatuta; handik bost hilabetera, 1.100. Oro har, krisia hasi zenetik, 3.700 pertsonak jaso dute Lagun Aroren laguntza.

Oraindik ez du behin betiko irtenbiderik Fagor Etxetresnen auziak.

Fagor Etxetresnak berriz dira albiste. Dena den, esan beharra dago behera doala proiektu honetan esku hartzen ari den bazkide kopurua. Bada, 2014an, bazkideentzat babes sarea eraikitzeko konpromisoa hartu zuen Lagun Arok. Bazkideek, beraz, arazoak izatekotan, gure sistemara itzultzeko eskubidea izango dute. Datorrena datorrela, gure konpromisoa betetzen jarraitzeko ideiarekin jardungo dugu, duda barik. Besteak beste, pertsona horiek birkokatzen saiatuko gara. Horrez aparte, lan barik gelditzekotan, gure sostengua izaten jarraituko lukete; esaterako, prestazioen bidez.

Aurrera begira, zer?

Hainbat erronka ditugu. Bide horretan, bi prestazio aipatuko nituzke: batetik, enplegu laguntzarena. Hor, gure fondoa indartu beharra dugu, hurrengo krisiari indarrez heltzeko. Beste erronka bat pentsioena da. Ondo prestatuta gaude alor horretan, baina lasakerian erori gabe jardun beharra dugu, merkatuaren gorabeherak eragina baitute pentsioen kontuan. Hori horrela, etekinak atera beharko ditugu, inbertsio dibertsifikatuak eta errentagarriak eginez; modu berean, seguruak izan beharko dute horiek. 6.300 milioi euroz mintzo gara. ■■■■

Ahoko usain txarra

OSASUNA ELIKADURA



Testua: Ainhoa Etxeberria
Dietista eta nutrizionista
Argazkiak:
healthlivingsolution.com

Ahotik datorren kiratsa, usain txarra, da halitosia. Usain txar horrek jende askoren bizitza sozial eta profesionalean eragin zuzena izaten du.

Badira zenbait pertsona ez direnak jabetzen daukaten ahoko usain txarraz, eta, hori dela eta, beste pertsona batzuen bitartez konturatzen dira. Beste batzuk, oster, kontrako aldean daude: hauek ahoko usain txarra dutela uste dute, baina ez da horrela; kasu horietan, fobia psikologikoa da. Eta hirugarren kasuan, eta ohikoena, usain txarra dutenak eta jabetzen direnak daude.

Halitosia ez da gauza berria, herri primitiboetan usain txarrari aurre egiteko konponbide naturalak erabiltzen zituzten – aurrerago zenbait erremedio azalduko ditugu–. Gaur egungo zenbakiei erreparatuz gero, biztanleen erdiak baino gehiagok sufritzen dute gaitz hori. Horrez gain, emakumezkoek zein gizonezkoek nozitzen badute ere, gizonezkoetan ohikoagoa da.

Halitosiaren arrazoiak

Usain txarra duen airea ahotik irteten dela uste bada ere, sudurretik botatakoan ere agertzen da usain txarra. Bada, zeintzuk dira halitosiaren arrazoiak?

Hainbat izan daitezke: likido gutxi edateagatik ahoa lehortzea; asko hitz egitea; estres egoerak; zenbait

botika hartzea; proteina asko jatea; kafea eta alkohola hartzea; erretzea; biriketako, giltzurrunetako eta eztarriko infekzioak; diabetesa; hilerokoa; eta onddoak edo txantxarrak izatea.

Bi eratakoak

Bi halitosi mota daude: patologikoa, gaixotasun baten ondorioa denean; eta aldi baterakoa, goizean esnatutakoan agertzen dena, kafea edo alkohola edan ostekoa...

Aurre egiteko moduari dagokionez, komeni da ahoko higijene ona izatea, hortzak eta mingaina tresna egokiekin garbituz eta irakuzketak eginda –enjuageak–.

Horrekin batera, badira lagungarri izan daitezkeen zenbait elikagai. Batetik, limoia: zuku forman eta urarekin nahastuta hartuz gero, goizean baraurik hartu. Bestetik, zenbait belarren nahasketarekin egindako infusioa hartu daiteke: menda, kamamila, txikoria-belarra eta garraiska; sagarra gordinik otorduetatik kanpo jatea ere bakteriak kanporatzeko oso ondo doa; osagarri digestibo eta arazgarri naturalak pilula, anpoila eta jarabe eran; iltzea gordinik murtxikatzea; eta haragi gorri gutxi jatea, besteak beste.

Uste dut ez dela beharrezkoa medikuaren diagnostikoa, jakiteko ahoko usain txarra dugun edo ez, baina badaude egiten diren bi proba ezberdin: batetik, pazienteak ahoa 30 segundoz itxita izan ondoren kanporatzen duen airea usaintzea; bestetik, mingainaren atzeko aldea koilara batekin igurtzi eta zikin irteten den edo ez ikustea.

Umeek ere izaten dute

Helduen ahoko usain txarraz aritu gara, baina aipatzekoa da umeek ere izaten dutela batzuetan. Bada, zein kasutan izaten da ahoko usain txarra umeen kasuan? Bereziki, zazpi dira arrazoiak: batetik, janaria ahoan gelditzen zaienean; hori sarri gertatzen da, ez dutelako ondo garbitzen, eta germenak ondu egiten dira usain txarra emanaz. Bestetik, haginaren bat usteltzen denean; janaria hagin horren barruan sartzen da eta usteltzean usain txarra ateratzen du. Horrez gain, angina handiak dituzten umeek usain txarra sortzeko joera handiagoa dute; anginek bitarteak edo zulotxoak izaten dituzte, bertan janaria geratzen da eta usain ateratzen dute usteltzean. Sukarra dutenean eta eztarriko mina dagoenean ere usain txarra izaten dute, plakak ateratzen direlako, eta, infekzioa dagoenean, usain txarra egoten da. Beste arrazoi bat begetazioak dira. Sudur atzean eta eztarriaren goiko partean ateratzen den edo hazten den haragia dira begetazioak; mukiak eta janaria pilatzen joaten dira bertan, eta, usteltzean, usain txarra ematen dute. Onddoek ere eragiten dute usain txarra; mingainaren gaina zuri dagoenean –hori kolorera ere jotzen du batzuetan– onddoak daudela esango dugu, eta horrek usain txarra ematen du. Azkenik, zetosia dago; hau da, gorputzak azukre kopuru txikia duenean. Gutxi jaten duten umeen kasuetan gertatzen da, edo diabetikoetan. ■■■



KOMENI DA AHOKO HIGIENE
ONA IZATEA, HORTZAK ETA
MINGAINA GARBITZEA

Anitza eta aberatsa

KIROLA URREXOLA-ORKATZATEGI-AITZULO-URREXOLA MENDI IBILALDIA

Testua: E.A. / M.O.
Argazkiak: Mikel Otero

Bergarako mugarren ibilbidea amaitu ostean, Oñatiko parajeetara itzuliko gara, Urrexola auzora, hain zuzen, handik hasiko dugu-eta orotariko ikuspegiak eta lekuak dituen ibilbidea.

Oñatiko Torreauzoko bidegurutzean, Olaterako bidea hartuko dugu, eta, zentralera heldu baino lehen, bidegurutzean eskuinera hartuko dugu. Bi kilometro inguruko aldapa igo ostean, bidegurutzean ezkerrera hartu eta Urrexolako elizarekin egingo dugu topo. Han aparkatuko dugu autoa, eta ibilbideari ekingo diogu, bolalekutik aurrera doan bidea jarraituz. Antxitene baserri ondotik pasatuko gara, errepidea zeharkatu eta Garaikua – Bañu-etxe– baserri aurretik igaro ostean, gorantz jarraituko dugu. Pista handi batekin topo egin, eta ezkerretara hartuko dugu, Urrexola Garai baserrira iritsi arte. Bidegurutzean, berriro ezkerrera egingo dugu, gorantz, eta bide horren bukaeraraino joango gara, Urtapotoluetako leporaino – tumulu bat dago gertu–. Ezkerretara agertuko zaigun bidexka hartuko dugu, eta goian Orkatzategi ikusiko dugu. Tontorrera joateko, zelai batean barrena, aurrerantz jarraituko dugu, aldapa bukatu arte, eta goian, aizkora forma daukan buzoia ikusiko dugu. Tontor horretatik paisaia politak ikusten dira; beraz, tarte bat hartuko dugu horietaz disfrutatzeko.

Behin hamarretakoa egin eta paisaiaz gozatuta, jaisten hasiko gara, eskuinaldean Aloña mendia parean dugula. Jaitsiera markatuta dago, baina ez dira samur topatzen arrastoak. Jaitsiera zuzena da; beraz, zuzen egingo dugu aurrera, beti zelaian behera, gure helburua beherago dagoen Aitzgaineke putzua delako. Hara heldutakoan, gaineratik pasatuko dugu ezkerraldera tiratuz, eta laster, horiz eta zuriz markatutako bide batekin topo egingo dugu. Bertatik joango gara beherantz. Momentu batean, bideak beherantz jarraitzen du, baina ezkerretara markatuta dagoen bidetik jarraituko dugu guk. Bide horrek Aitzulo kobaren atzeko aldera eramango gaitu. Aitzulo paraje ederra da, bisitatzea merezi duen horietakoa. Guztiz irekia da,

eta, kontu apur batekin ibiliz gero, ez dago inolako arriskurik. Beraz, kobazuloan gora eta behera ibiliko gara, bertatik dauden ikuspegiez gozatuz, eta, ondoren, berriz sartutako zulotik irtengo gara gorantz. Lehengo bidea hartuko dugu berriro. Horretarako, zulotik irten eta hogeita metrora eskumatik irteten den bidexka batetik gorantz egingo dugu –markatu gabe dago bidexka hori–. Gure helburua Andetako gaina harrapatzea da, eta, horretarako, bidexka hori gorantz jarraitu behar dugu, hamar minutu inguru, ondo ikusten den beste bidexka batekin topo egin arte.

Bide berri horretan, eskumara beherantz jarraituko dugu, basoan sartuaz. Bide polit horrek harkaitz horien iparraldera eramango gaitu. Laster, alde horretako goiko



kanalaren hasierara helduko gara eta kanalaren gaineratik jarraituko dugu Urrexola aldera. Orain bidea laua da eta bertatik jarraituko dugu egurrezko eskailera bat ikusi arte. Momentu horretan kanala utziko dugu eta eskaileretatik jaitsiko gara. Ondoren, beherantz

doan pistatik jarraituko dugu –dagoeneko Urrexola ikusten hasita gaude–. Pista hori jarraituko dugu beste pista batekin topo egin arte. Eskumara hamabost metro inguru egin eta berehala beste pista batekin egingo dugu topo. Oraingoan,

Ezkerreko orriko irudian, Urkuluko urtegia ikusten da, atzealdean Anboto mendia duela.

Eskuineko orriko irudian, Orkatzategi gaineko aizkora formadun buzoia, bi argazkitan.

Ibilaldia

Distantzia	7,02 kilometro
Iraupena	2-3 ordu
Zailtasuna	Erraza
Ibilbidea	Zirkularra
Seinaleztatuta	Ez
Bidea	Mendi pista eta bidexkak



Jolasguneen webgunea

ADITUEN ESANETAN HEZIKETA



Testua: Itsaso Pagoaga Zaloña
Olgeta, Jolaserako Baliabide Zerbitzua Argzk.: jolasparkeak.eus

Aurreko astean, bailarako hiru eragilek, Goienak, Txatxilipurdik eta Olgetak, elkarlanean egindako webgunea aurkeztu genuen: *www.jolasparkeak.eus*. Bertan, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako aire libreko jolaserako espazioak aurkituko ditu horren bila dabilenak. Baina ez edozein gune, alajaina! Eta zergatik sortu dugu webgune hau?

Guztiak molde berekoak

Azken hamarkadetan ohiko bilakatu da patroï bereko jolas parkeak eraikitzea han eta hemen. Hainbatean entzun dugu haur bakoitza mundu bat dela. Beraz, zergatik eskaini jolaserako espazio berdinak haur guztiei?

Adituek eta arituek sarri esan ohi dute haurrek berezkoa duten jolaserako sena kamusten dutela patroï bera erabiliz eraiki diren jolas parke hauek: partxis koloreko ziburuez, txirristez eta bestelako egitura itxiez osatutakoek, alegia. Eta, aldiz, arituek, hau da, haurrek, behin eta berriz erakusten digute jolaserako edozein espazio dela egokia edota egitura berdinez osatutako jolas parkeei beste erabilera bat ematen dietela; gora eta behera ibiliz, makila eta lurrarekin errekaetoak eraikiz, hanka bakarrean saltoka arituz edota, nola ez, ezkutaketan

jolastuz. Horretarako eta beste hainbat jolasetarako nahikoa dira gune irekiak eta moldaerazak.

Hori dela eta, maiz Europara jo dugu han nolako jolasparkeak dituzten ikusteko. Eta harritu egin gara. “Ooo! Haienak bai, jolasparkeak!”. Eta ez gara ohartzen Euskal Herrian bertan ere jolaserako hainbat espazio ditugula bestelako parametro eta ereduetan oinarritutakoak. “A ze zortea dugun!”. Horregatik, haur zein familientzat esanguratsuak eta aberatsak diren espazioak gida batean batu, eta erabiltzaileen esku jarri nahi izan ditugu.

Informazio ugari


Eta zer aurkituko duzu, zehazki, atari digital horretan? Jolasparkeak eta jolasguneak. Jolaserako espresuki sortutako guneak edota jolaserako ere balio duten aire libreko guneak.

Gune horiek aukeratzeko orduan, baina, honako irizpide hauek izan ditugu kontuan. Adibidez: jolas parkeen materiala ahalik eta naturalena izatea; haurren berezko sormen, motrizitate eta abentura sena bizirik mantentzeko gai izatea; auzolanean edo prozesu parte hartzaileen bidez egindakoak izatea; estaliak izatea... Aukeratutako espazioak zerrenda honetako irizpide bat baino gehiago betetzea izan da erabili dugun premisa.

Jolas parke edo jolasgune bakoitzean honako informazio hau aurkitu ahal izango duzu, mapako ikonoak klikatuz gero.



Espazioaren izena, deskribapen laburra, argazkiak, bitxikeriaren bat eta fitxa teknikoa. Fitxa teknikoa gehitzea garrantzitsua iruditzi zaigu. Izan ere, maiz, haurrekin gabiltzan helduontzako informazio praktikoa hau aldeztu aurretik izatea oso baliagarria izaten zaigu. Hau da, espazio konkretu horretan komunikatu ote dagoen edo ez, edota gorpil aulkientzako irisgarria den edo ez, nola iritsi gaitezkeen gune



horretara, urik ba ote dagoen, itzalik...

Momentu honetan, Euskal Herriko hamahiru jolasguneen proposamenak daude ikusgai. Baina, hilero, gehiago gehituko ditugu. Beraz, adi hurrengo hilabeteetan. Agian, baliagarria eta gustukoa duzun proposamenen bat aurkituko duzu bertan.

Erabiltzaileek elika dezakete

Jolasparkeak webgunea sortzeaz gain, martxan jarri ditugu sare

sozialetako hainbat kontu: Facebook orria, taldea eta Twitter kontua. Eta zergatik hau? Bada, *Jolasparkeak* ataria eta sare sozialak erabiltzaile orok elikatu ahal izango dituen tresna izatea nahi dugulako. Hau da, edozein pertsonak bere inguruan gomendatzeko moduko gunerik ikusi edo ezagutuko balu, aukera du sare sozial zein webgunearen bidez gune horren berri emateko. Era horretan, Euskal Herrian eskura ditugun jolaserako altxor

txiki handi hauen sarea osatzen joango gara. Ikusten duzun moduan, gida hau ez da gida itxia, elkarrekin elikatzen eta aberasten joango garen gida izatea da beronen funtzioa. Beraz, jolaserako aire libreko gune esanguratsurik ezagutu eta partekatu nahi izanez gero, idatzi, lasai, webgunean edo sare sozialetan.

Espero dut elkarlanean sortu dugun gida hau erabilgarria eta gustuko izatea. ■■■

Argazki handian, Eskoriatzako Torrebaso parkea. Txikian, *jolasparkeak.eus* webgunea.

Unzueta sagardotegian parrila aukera zabala

OTORDUAN



Valeriano Ibabe
Sukaldeko arduraduna
Argk.:A. Txintxurreta

Gasteizko eskolan ikasketak egin ostean, 28 urterekin jarri nuen martxan, anaia Nestor Ibaberekin batera, Unzueta sagardotegia. Produktu freskoak, bertakoak eta sasoikoak erabiltzen ditugu, kalitate onekoak guztiak, eta bezeroa gustura gelditzea izaten da gure helburua. 20 urteko esperientzia daukagu eta urte guztian izaten da gurean

sagardotegiko menuaz eta txotxaz disfrutatzeko aukera.

Gure espezialitatea
Sagardotegiko menua da gure espezialitateetako bat. Hala ere, kartan badaukagu beste hainbat plater esanguratsu ere; parrilan egindako arrainak, adibidez. Hurrengo orrian datorren bakailaoa, lupia, legatza eta erreboiloa; eta haragitan, txuleta eta txuletilak. Egurrekin egindako txingarretan erretzen ditugu produktu horiek, eta zaporen

berezia lortzen dute, gure ukituarekin.
Postreetan ere aukera zabala daukagu; tartak, flanak eta natillak ateratzen ditugu, esaterako. Guztiak etxean egindakoak izaten dira.
Jantoki bereziak daukagu eta handiengan 70 lagun sar daitezke.

Ingurune ederrean
Bi terraza daukagu: udan erabiltzeko bata, zuhaitz azpian; eta aterpearekin, bestea. Aparkalekua ere badaukagu. ■■■



Unzueta sagardotegia
• **Helbidea:** Zabola auzoa z/g, Aramaio.
• **Telefonoa:** 945 44 50 95.

Bakailaoa parrilan

Osagaiak

- Bakailaoa, 300 g
- Olio
- Pikillo piperrak, 3

Prestaketa

1. Bakailaoa olio z busti pintzel batekin.
2. Parrilan egiteko, sua piztu egurrekin eta txingarretan erre bakailaoa. Lehenengo, azala beheara begira jarriko da, txingarretatik 30-40 zentimetrora, 12 minutu inguru. Gero, buelta emango zaio bakailaoari eta beste 4-5 minutuz utzi.
3. Plateretan aurkezteko, jarri bakailaoaren azala goiko aldera begira.
4. Pikillo piperrekin apaintzeko, egin piperrak 10 minutu inguruz labean, olio apur batekin, eta gero, atera platerera.
5. Plateretan bota txorrostada bat oliba-olio, eta jateko prest egongo da.

Zailtasuna: ●●●●●

UNZUETA SAGARDOTEGIARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!

943 25 05 05

kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Aurreko zozketako irabazlea:
Mirari Arando Ilarduia (Arrasate)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

'Aloha' estiloa iritsi da

MODA ALKANDORA HAWAIIARRAK

Testua: Maider Arregi
Argazkiak: Pinterest

Uda girora bete-betean murgiltzen duten jantzi horietakoak dira alkandora hawaiiarrak. Freskoak eta erosoak dira, emakumezkoendako zein gizonezkoendako aproposak; eta konbinatzeko oso errazak. Begirada bakarrean uda giroan sartzen gaituzten horietakoak.

Zinema mundura garamatzen jantzia da. Izan ere, 60ko hamarkadan, Elvis Presley rock-and-rollaren ikono eta aktoreak uda osoan janzten zituen palmera, lore eta kolore biziko alkandora horiek. Joera tropikal hori, orain, kalean, itsas ertzean, uda giroko terrazatxoetan... ikusten hasiak dira. Aipatu behar da joera hori osagarrietara eta bainujantzietara ere iritsi dela.

Igor Zuazolazigorraga estilista bergararrak dio gurean kosta egin dela alkandora hawaiiarrak janztea. "Joera hau orain dela denboraldi bat edo bi ikusi genuen Parisen eta Milanen. Ez da nobedade berria, urteak baititu, baina berriro ekarria izan da. Jendeari estilo honetako alkandora jartzea kostatu egin zaio. Gehienbat, nesketan nabaritutako den joera izango da aurtengo; izan ere, gehiago jokatu daiteke estilismoekin: soineko, praka eta osagarriekin, batez ere. Mutiletan, ordea, ez da hain argi ikusiko. Soilik alkandora eta kamisetetan. Kalifornia aldean dago inspirazioa. Handik ekarritako eguraldi onaren, jende alaiaren eta han

bertan dagoen joeraren isla dira alkandora hawaiiarrak", azaldu du Zuazolazigorragak.

Erabilera asko

Moda estilista bergararrak azaldu du udarako oso *look* freskoak egin daitezkeela mota horretako alkandorekin. "Praka motzekin eta zapatila argiekin *look* ikaragarriak egin daitezke. Informalago joan nahi bada, berriz, txankletekin edo sandaliekon konbina daitezke". Ukitu formalagoa emango zaio, ordea, *look*-ari zapatilak albo batera utzi eta zapatak jantzita: "Mutilen kasuan -afari batera joateko, esate baterako-, galtza luzeak zapata formalekin konbinatuta; hau da, mokasinak

edo larruzko zapata elegante batzuekin. Eta emakumezkoen kasuan ere berdintsu, bakero estu batzuei takoidun zapata jarri edo horren modan dauden plataformadun espartzuzko sandaliak gehituz".

Geratzeko etorri den joera freskoa dela dio, eta uda aldean nabarmenagoa izango dena. Udazkenean, baina, hainbat ukitu tropikal ikusten jarraituko da jantzietan. ■

EGURALDI ONAREN ETA JENDE ALAIAREN ISLA DIRA ALKANDORA HORIEK



Ezkerreko argazkian, udazkeneko jaketan estilo hawaiiarra nagusi.

Eskuineko argazkietan, oihaltreskoagoa duten udarako alkandorak.

Argiztapenarekin argi

MOTORRA ARGIZTAPEN DESEGOKIAGATIK ISUNAK

Testua: Xabi Gorostidi
Argazkiak: Pixabay

Auto eta motorretako argiak ezinbesteko elementuak dira gidatzen bagabiltza ondo ikusteko, eta besteek ondo ikus gaitzaten.

Baina argien erabilpen egokia ez da argi laburren edo argi luzeen artean aukeratzera mugatzen. Badaude kontuan izan beharreko faktore gehiago: klimatologia, alboan izan ditzakegun autoen presentzia edota autoen argiztapenarekin lotutako araudia. Azken hori ondo ez ezagutzeak etxeko postontzian isun deseroso bat baino gehiago jasotzera eramán gaitzake; beraz, horiek saihesteko helburuarekin, jarraian zerrendatuta ikus ditzakezu argiztapen desegokiaren eraginez jaso daitezkeen isunak, eta horien zenbatekoak.

Autoa geldí dagoenean

Eguzkia irteten denetik gordetzen denera arte, galtzada edo bazterbide batean geldí geratzen den ibilgailu orok du posiziozko argiak pizteko beharra. Zirkulazio kodeak hala jasotzen du, eta hori ez egiteak 200 euroko isuna dakar, arau-hauste larria izateagatik.

Lainotako argia

Argi berezi horien erabilpena baldintza klimatologiko batzuetara mugatzen da; behe-lainoarekin edo behar bezala ikustea eragozten duen euri bortitzarekin. Baldintza horiek gabe, lainotako argiak erabiltzeak 200 euroko isuna izan dezake, hein

handi batean, beste gidarien ikusmena kaltetzen dutelako.

Argiekin abisatzea

Polizia kontrol bat dagoenean, ohikoa izaten da argi luzeak itzaliz eta piztuz parekoari abisua ematea. Kasu horretan, legediak baimentzen du argi luzeak une motz batez piztea, pareko gidariei arrisku baten presentziaz abisatzeko, edo aurreratze desegokia egin dutela jakinarazteko. Baina argi luzeen eta laburren arteko jokoa behin baino gehiago egiteak 80 euroko isuna du, pareko gidariaren itsualdia eragin dezake eta.

Matxuratutako argia

Lehengo legediak ordezeko argi-jokoak eramatera derrigortzen zuen, baina 2010 ezkeror ez da derrigorrezkoa. Hala ere, ondo funtzionatzen ez duten argiekin joateak 200 euroko isuna dauka. Argiztapena guztiz egokia ez den kasuetan, argia aldatzea komeni da. Hori egiten ez badakizu, seguru mota batzuekin, errepideko asistentzia etor daiteke zuri argia aldatzera, edo hori egin dezakeen tailer batera autoa garabiarekin eramatera.

Matrikulako argia

Gure autoa berdina den beste batetik bereizteko tresna da matrikula. Identifikazio elementu hori behar bezala argizatuta ez izateak isuna dauka. Kasu horretan ere zenbatekoa 200 eurokoa da, baina ez du puntu galerarik.

Gurutzatze argiak

Legediak argi horiek erabiltzera behartzen du, bi egoera oso konkretutan: errei alderantzikagarrietatik igarotzerakoan eta konpontze lanak egiten ari diren errepide zatietan. Arau-hauste horrek 200 euroko isuna du.

Maniobrak iragarri

Kasu horretan, bi isun ezberdin jasan daitezke maniobrak ondo ez iragartzeagatik. Demagun pareko autoa aurreratzera goazela; argiak beranduegi pizteagatik 80 eurokoa da isuna eta ez erabiltzeagatik, aldiz, 200 eurokoa.


Argirik gabe joatea

Argi gutxi dagoenean argiak piztu gabe joatea lege-hauste larria da, eta 200 euroko isuna du. Gaur egun, auto berri gehienek sentsoareak dituzte eta argi gutxiko egoeretan automatikoki pizten dira. Baina adindun autoa edukiz gero, adi egotea komeni da.

Argiak gasolindegian

Xelebre samarra iruditu daitekeen arren, argiak jarrita ditugula gasolina botatzek isuna dauka. Eta ez nolanahikoa, gainera: 200 euro eta puntu galera. Zentzu horretan, isun bera jaso daiteke gasolina botatzen duzun momentuan irratia piztuta izateagatik edo mugikorretik hitz egiteagatik.

Erregaia botatzeko unearekin lotutako isunik larriena, berriz, motorra piztuta izateagatik jaso daitekeena da. ■■■■



ARGIAK EZINBESTEKOAK
DIRA ONDO IKUSTEKO ETA
ONDO IKUS GAITZATEN

Ekaitz Zilarmendi

GURE ARTISTAK

Testua: Ane Vitoria

Argazkiak: Ekaitz Zilarmendi

Duela ez askora arte, fabrika batean egin du lan Ekaitz Zilarmendi aretxabaletarrak, baina, denborarekin, bere pasioa ogibide bihurtu du: argazkilaritza, hain zuzen ere.

Argazkilaritza maite duzula diozu. Nola murgildu zinen mundu honetan?

Hogei urte nituela, kamera analogiko bat nuen; hala ere, garai hartan ez nion garrantzi handirik ematen. Denborarekin konturatu nintzen nire bizitzako bizpahiru urte ez zeudela argazkietan jasota; gabezia hori sumatu nuen eta argazkilaritza ikastea erabaki nuen.

Eta nolakoak izan ziren hasierako urteak?

2005ean nire kontu ikasten hasi nintzen. Hiru urte geroago, Bilbon argazkilaritza ikasi nuen urtebetez eta 2009 eta 2011 bitartean Donostiako Ivasfot eskolan argazkilaritza profesionala ikasi nuen.

Betidanik izan duzu gustuko?

Egia esan, ez nintzen kontziente izan, aipatu dudan gabezi hori sumatu nuen arte; gutxika ohartu naiz. Bilbon nengoela, Hasselblad kamera erabili erabiltzen nuen. Kamera bereziak dira, bisorea oso handia dutenak, eta bertatik ikusten zena ikusi nuenean pentsatu nuen: “Hau nahi dut!”. Argazkilaritzaren mundutik liluratu ninduen ikuspegi hori izan zen.

Zeintzuk dira, zuretake, argazki kutunenak?

Argazkilaritza bere osotasunean maite dut; lan guztiak, erretratuak, publizitatera bideratuta dauden

argazkiak, fotokazetaritza... Baina, niretake, erronka argia da. Edozein egoeratan argiarekin jolastea eta argi hori harrapatzen ikastea gustatzen zait. “Argiarekin jolastu” hori izan ohi da nire diskurtsoa. Gehien gustatzen zaizkidanak argi gutxi duten egoerak dira; autore lanetik begiratuta, noski.

Orain ere buru-belarri zabilta. Oñatiko Argi Festibalean *Sistemak* izeneko erakusketa aurkeztu nuen. Horretan, autore lana dago, baina oraindik ez dago guztiz osatuta. Hala ere, inpultso horretan jarraitu behar dut, baina ez da erraza izaten lantzen dudana lotzea.

Zeri buruzkoa da?

Aretxabaletako kintoetan dago oinarrituta. Erritual horretan, gazteek, heldutasunera pasatzeko, herriaren aurrean egiten dute dantza; hau da, euren burua aurkezten dute. Nik begirada pedagogiko hori bilatzen dut. Gure bizitzaren bidea eta pertsona bide horretatik nola mugitzen den adierazten saiatzen naiz. Pertsonak mundu honekin duten konexioa bilatzen dut, eta, horretarako, pertsonen begiradetan jartzen dut interesa. Nire lana hori da, mundu txoro honetan nola kokatzen garen ulertzen eta adierazten saiatzea, dualtasun baten barne bizi baikara.

Aurrera begira proiekturik?

Bidea egiten jarraituko dut, argazkilaritza asko maite dudalako; nahiz eta, batzuetan, ogibide hau zaila izaten den. ■■■



Hauek dira Ekaitz Zilarmendik ateratako argazkietariko batzuk.



“Erotikaren eta pornografiaren arteko muga norbanakoan dago”

KULTURA JUDIT RUIZ DE MUNAIN BEDIA IDAZLEA

Testua: Aitziber Aranburuzabala
Argk: Judit Ruiz de Munain Bedia

Hiru lagunek elkarlanean sortu dute *Zukafukamusuka* liburua: Judit Ruiz de Munain Bedia da testuen egilea, Jokin Mitxelena ilustratzailea eta Patxi Zubizarreta itzultzailea. Ofizioz informatikaria da Aretxabaletan bizi den Ruiz de Munain aguraindarra; hortaz, askorentzako, sorpresa izan da ekainean argia ikusi zuen liburua.

Karanbola batzuen emaitza da. Lagun mina dut Jokin eta gaztelera idatzi nituen istorioak irakurtzeko utzi nizkion. Iritzia eskatu zion Patxiri gero, eta, hark ere gustuko izan zituenez, Txalaparta argitaletxeko Mikel Sotori komentatu zioten, bazekitelako literatura erotikoa sail bat daukatela; eta halaxe sortu zen gure elkarlana. Txalapartak apustu ausarta egin du, gastuetan erreparatu gabe. Edizio berezia da, koloretan eta kalitate onarekin.

Zein izan da bakoitzak egin dion ekarpena proiektuari?

Nire paranoiak istorio bihurtzea izan da nire lana; eta Jokinek eta Patxik euren artea gehitu diete ondoren. Istorioei ukitu berezia eman die Patxik itzultzeko orduan testua moldatuz, itzulpen hutsetik harago joanaz; nire hitzetan gordinagoak dirudite istorioek, eta berak plater gozoago bihurtu ditu. Mitxelenak ere askatasun osoz egin du lan, eta *shunga* japoniar artearen moldaketa pertsonala marraztea erabaki zuen. *Shunga* marrazkiak bikoteen logeletan jartzen ziren; oso esplizituak dira,



- **Izenburua:** ‘Zukafukamusuka’.
- **Egileak:** Judit Ruiz de Munain, Jokin Mitxelena eta Patxi Zubizarreta.
- **Generoa:** Erotikoa.
- **Argitaletxea:** Txalaparta.

Jokinen marrazkiak lez. Liburu osoaren hatsa darie ilustrazioei ere. Ohorea izan da bi maisuekin lan egitea; profesionalekin lan eginda, lana gozamina da.

Hogei atalez osatutako bilduma da. Zelakoak dira?

Denetarik dago: ipuinak, olerkiak eta mikroipuinak bat ere badago. Gehienetan, protagonista emakume bat da, eta, nahiz eta gehienak erotikoak izan, badaude erromantikoak direnak ere. Istorio bakoitzak pertsonaia desberdinen une bat, bere bizitzaren zatitxo bat, erakusten digu. Emakume horiek egunero bizi dituzten egoeretan, pasio une paregabe bat topatzen dute. Gaur egungo pertsonaiak dira gehienak, baina badira euskal mitologiak ekarri ditudanak: Basajauna, Olentzero eta Mari Domingi; azken horiek elkar nola ezagutu zuten idaztera ausartu naiz. Estiloaren aldetik nahiko arinak dira, motzak eta harira doazenak. Sexu eszenek kadentzia berezia daukate eta oso esplizituak dira. Ez dago loturarik ipuinen artean, ez baldin bada pertsonaiek duten bizitzeko grina.

Fantasia ala errealitatea?

Ba, bietatik, noski. Pena handiz bada ere, aitortu beharra daukat ipuinak erotikora jotzen duenean fantasiazko munduan murgiltzen garela. Eguneroko eszenei bukaera desberdina eman nahi izan diet.

Erotikoa baino gehiago, pornografikoa dela diozu. Idazteko ala irakurtzeko moduan dago muga?

Nire ustez, norberaren buruan dago muga, baina, eszena motzak

Argazki nagusian,
Judit Ruiz de
Munain idazlea
Aretxabaletan.

Ezkerreko orrian,
liburuaren azala
eta Mitxelenaren
ilustrazioak.



Liburu-dendetan eta
QR horretan dagoen
helbidean eskura
daiteke liburua.



eta harira doazenak izanik, pornoak duen estruktura antzekoa dute; esplizituak direlako diot.

Zergatik genero hori?

Ez dago arrazoi mistikorik atzean. Gai unibertuala da, ziur nago ez dudala ezer berririk asmatu; hitzetan jarri besterik ez dut egin.

Azalpen asko eman dituzu?

Izan nituen, bai, nire dudak, eta ingurukoekin komentatzean ere denetarik entzun nuen, kontrako eta aldeko argumentuak: gaitzizen bat erabiltzeko aukera bazegoela, herri txiki batean bizi den ama banandua naizela eta ondo pentsatu behar nuela... Ez dut uste gizarteak ezarritako gidoi bati jarraituz bizi behar dugunik, eta egindako lanaz harro nago. Erabaki erraza izan zen.

Ingeniaria zara ofizioz, zer ematen dizu idazteak?

Nire lanean, kreatibitatea oso garrantzitsua da; Alecopen egiten dut lan, software produktuak sortzen, eta marketin lanetan ere parte hartzen dut. Irudimena erabili behar da; idazteko orduan, berdin. Beti idatzi dut, ez da bat-batean otu zitzaidan zer edo zer. Idazten dudanean eta hitzak paperean isurtzen direla ikustean, bizirik eta, era berean, bakean sentitzen naiz. Terapia egiteko modu ezin hobea da niretzat. ■

“LIBURUA ESKUETAN IZAN NUEN LEHEN SENTSAZIOA ZORAGARRIA IZAN ZEN”

Erbesteratzearen argazki izugarria

LIBURU ARTEAN



La analfabeta

Egilea: Agota Kristof
Argitaratzailea: Obelisco
Argitaratze urtea: 2006
Orrialdeak: 80
Generoa: Biografia



Testua: Karmele Agirregabiria
Leintz Udak
Euskaltegiko zuzendaria

Irakurri egiten dut. Gaixotasun baten modukoa da. Eskuetara, begietara iristen zaidan edozer irakurtzen dut: egunkariak, eskola-liburuak, kaleko kartelak, klean aurkitutako paper-zatiak, sukalde-errezetak, haur-liburuak... Idatzitako edozer. Lau urte dauzkat. Gerra hasi berria da. Gure herriak ez dauka, ez tren-geltokirik, ez elektra-endarrik, ez txorrotako urik, ez telefonorik.

Agota Kristofen obrarik ezagunena, dudarik gabe, *Claus eta Lucas* trilogia da. *Koaderno handia* (Alberdania, 1986), Eskarne Mujikak bikain itzultitako obra –trilogiaren lehena–, ikaragarria da, gogorra. Erraz eta azkar irakurtzen da. Irakurleari geratzen zaion sententzia, berriz, oso bestelakoa da, kontatzen dena itsusia baita, gogorra, krudela... Haurtzarora ere horrelakoa izan daitekeela erakusten digu.

HAIN ELEBERRI LAZGARRI ETA ERAKARGARRIEN IDAZLEA EZAGUTZEKO AUKERA EZIN HOBEA DA

Hain eleberriz lazgarri eta erakargarriaren idazlea ezagutzeko aukera ezin hobea da *La analfabeta* liburu autobiografikoa. 11 kapitulu laburretan, frantsesez idazten zuen idazle hungariarraren bizitzako 11 une garrantzitsu ezagutuko ditugu. Ibilbide horretan, lehenik, ezagutuko dugu hungariar idazlearen idatzitako liburuak *iresten* dituen neskak; azkenik, frantsesez idazten duen idazle ezaguna agertuko zaigu. Haurtzaro zoriontsutik gerra ondoko pobrezia, barnetegiko bakardadea, Stalinen heriotza, hizkuntzen arteko talka, ihesa, Suitza...

La analfabeta oso modu xumean idatzitako dago. Baina, egia esateko, egileak ez du gehiago behar errefuxiatuaren oinazea erakusteko: galera –nortasuna, erroak...–, bakardadea, ezberdina izatea... *Nolakoa bizitza izango nuen nire herria utzi ez banu? Gogorragoa, pobreagoa, bai, baina ez hain bakartia, hain desegina; agian zoriontsua.* ■

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko iraileko zozketa



Telebista (Samsung 32")

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



Diskoa

Kokein taldearen binilo sinatua.

Parte hartzeko izena: Kokein



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (irailetik aurrera): 20 euro.
Deitu: **943 25 05 05** goienakluba.com

goienakluba

Eduardo Gorosarri

GURE ALTXORRAK ESKORIATZA



Ondoko orrian, Gorosarrik idatzitako kantuetako partiturak eta hark erabilitako txistua eta mezetarako liburua.

Orri honetan, Gorosarri bera, lehen meza esan zueneko argazkia, familiarekin, eta *Habana* itsasontziaren erreplika.



Testua: Mireia Bikuña eta Ibarraundi museoa
Argazkiak: Amaia Txintxurreta

Eduardo Gorosarri (Eskoriatza, 1889-1947) hil zela 70 urte bete dira aurten. Apaiz, organista eta txistulari izandako herriko semeari gorazarre egin zioten San Pedro jaietan. Koldo Merinok 1989an haren omenez egindako eskulturaren ondoan, plaka bat jarri zuten urteurrena gogora ekartzeko. Gainera, haren bizitzaren erreposoa egiten duen bilduma ipini dute Ibarraundin. Abuztuaren 31ra arte ikus daiteke. Gorosarrik idatzitako partituretako batzuk, haren txistua eta meza liburua, hainbat argazki eta dokumentu bildu dituzte. Gainera, hark konposatutako hainbat pieza

entzuteko aukera era badago Ibarraundi museoa.

Bizkaiko Kontserbatorioa

Aitaren eskutik maitemindu zen musikaz; solfeoko lehen eskolak harekin jaso zituen. Harmonikoak, Benito Saenz Biterirekin, orduko udal idazkari eta organista zenarekin. 14 urterekin Sopuertako (Bizkaia) organista eta udal txistulari plaza bete zuen.

1917an Salamancako seminariora joan zen. Organista eta gregoriano eskolak eman zituen han. Ostean, Ondarroako eta Begoñako parroketako organista izan zen. Bizkaiko Kontserbatorioan irakasle lanak ere egin zituen. Beti, musikari, txistuari eta organoari lotutako lanak eta ikasketak.

Txistularien Elkartea

1927ko irailaren 20an, Euskal Herriko Txistularien Elkartea sortu zen Eibarren. 110 bat txistulari elkartu ziren. “Elkartea sortzeko ez ezik, babes ekonomiko eta moralaren beharrean zegoen txistularien mugimenduari indarra emateko balio izan zuen. Prestaketan eta ospakizunetan Gorosarrik funtsezko papera izan zuen”, diote dokumentuek.

Zaraia goitzenaren itzalpean hainbat txistu pieza sortu zituen egun hartarako: *Alkate soñua*, *Ariñ-ariñ*, *Fandango*, *Biribilketa*, *Agur eta Arrateko Ama*, besteak beste. “Egun hartan bertan izendatu zuten Arrateko Ama Birjina txistularien zaindaria eta Gorosarri txistularien elkarteko presidente”, irakur daiteke.

‘Habana’ itsasontzian

1936ko altxamendu faxistaren ostean gerrak leher egin zuenean, beste bi apaizekin batera, Euskal Herriko 4.000 neska-mutikorekin batera erbesteratu zen Gorosarri. *Habana* itsasontzian sartu eta Erresuma Batura joan zen. Handik, Belgikara. Baina, alemaniarrek okupatutako herrialdea izanda, Gestapok atxilo egin zuen espioi ingelesa zelakoan.

1940ko ekainaren 30ean Bilbora itzuli zen Begoñako organista postua berreskuratzeko asmoz. Bittor Zubizarreta zen organista une hartan, baina plaza Gorosarriena zen. Hala ere, Lauzirika monsinoreak ez zion bere postua betetzen utzi eta Eskoriatzara bizi izatera erretiratu zen, tristurak eta nekeak jota.

1943an, Leitzan bizi zen iloba baten etxera joan zen eta hemezortzi hilabete egin zituen han. 1945ean, Madrilerara joan zen, Benigno Iturritzaeren etxera. Tetuan auzoko apaiza izan zen, Morcillo monsinorearen babesean. San Francisco el Grande katedraleko organista izan zen, jabetzarik ez zuen arren.

1946. urte bukaeran, berezkoa zuen osasun egoera eskasa larritu egin zen eta Eskoriatzara itzuli zen berriro ere. Musikari ezagunen bisitak jaso zituen: Jesus Guridi, Jesus Aranbarri, Bilboko Kontserbatorioko lagunak, abesbatzen elkarteko musikariak, txistulariak...

1947ko irailaren 12an hil zen, Eskoriatzan, eta bertan hilobiratu zuten. ■

APAIZA, TXISTULARIA ETA ORGANISTA IZAN ZEN ESKORIATZAKO SEMEA



Gorka Etxabe
@GorkaEtxabe
Irudia: Flickr / PMK

'Employer Branding', estrategia berria

Azkenaldian, sarritan entzuten ari naiz, han eta hemen, unibertsitatean eta marketin zein giza baliabideen arloko aholkulari eta espezialisten ahotan. Batzuekin eta besteekin ingelesez ahoskatzeko zailak diren bi hitz horiek aipatu izan ditugu; joera ei da, pertsonen talentuaren kaptazioaren gestioan diharduten profesionalentzat gaur-gaurko estrategia, eta, zeharka, komunikazioan dihardugunontzat: *Employer Branding*.

Oinarri-oinarrian, eta oso gainetik bada ere, ez da konplikatua teoria ulertzea. Talentuaren kaptazioan metodologia konkretua aplikatzea da. Alegia, enpresek amua arrantatzeko leku egokienean botatzea. Marka bateko kideek euren organizazioan bizi duten esperientzia komunikatzean oinarritzen da; alegia, esan dezatela erakundeko kideek zein berezia den bertan lanean jardutea. Kontatu dezatela beraien esperientzia, zein marka erakargarrian ari diren lanean, era naturalean, enpatizatu dezatela ikus-entzulearekin, konektatu dezatela lan bila ari diren talentuekin. Azken finean, enpresek euren bizi iraupenerako pertsona onenak erakarri beharko dituzte. Oso profil konkretua duten profesional gazte eta esperientzia handiagoa dutenak idatziko baitituzte enpresa horien etorkizuneko letra eta erronka estrategikoak. Enpresek hamaika



historia dituzte kontatzeko eta gakoa da nola kontatzen dituzten. Hori bai, benetakoak diren historiak beti dira sinesgarriagoak.

Gure inguruko erakunde eta enpresak ere ari dira arlo horretan pausoak ematen. Aste honetan bertan jakin dut, gertuko bi erakunde esperientzia pilotu batean murgilduta daudela. Mondragon Korporazioaren, MIK erakundearen eta PeopleMatters aholkularitza enpresa madrildarraren eskutik ari dira

**ENPRESEK AMUA
ARRANTZATZEKO LEKU
EGOKIENEAN BOTATZEA DA**

lanean. Definitu dute talentuaren kaptaziorako metodologia konkretua. Definitu dituzte zer-nolako langileak nahi dituzten. Zehaztu dute non arrantzatuko dituzten hautagai onenak. Definitu dute, era berean, nola komunikatuko duten beraien beharra, eta, noski, mezuak zein mezulariak nolakoak izango diren erabaki dute. Erakargarri bilakatuko dute beraien erakundea. Talentuek beren esperientzia garatzeko proiektu bikaina dela aieratuko dute. ULMA Packaging eta Fagor Elektronika dira aipatu enpresak.

Komunikazioan ari garenok gertutik jarraituko dugu enpresa horien lana. Badakigu erronka ez dela edonolako, baina seguru ondo aplikatutako estrategiak emaitzak eskaintzen dituela. ■

EROSKI
ARRASATE
Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Ezinbestekoak
Matxilan eraman behar
dituzun gauza guztiak!!!

Paper-dendan
seinaleztatutako
artikuluak

1 € / Alea

3,29 €
0,01 € / Alea

EZ AHAZTU
ZURE
FOLIOAKI

Papera (500 cm)
• 80 g

Ekainaren 1etik irailaren 30era

**Testu-liburuak Eroskin erosten badituzu, 5€ oparituko dizkizugu
eskolako materialean edo umeentzako arropa eta oinetakoetan gastatzeko***

Hauetako bakoitza: testu-liburuak, irakurliburuak, hitzlegiak, oparirako liburuak, buligoko alfabetak, olinpikoak, berriraketa, pizgarriak, gaitzirik eta eskualde-arropa. 20 euro gastatu behar dira eskolako materialean edo umeentzako arropa eta oinetakoetan, bakoitza bakoitzeko.



Zeure testu-liburuak doan finantza itzazu



Erreserba itzazu!
Aurre hartu ikasturteari **UTB:%0**

3
hilabete
90 eurotik

6
hilabete
140 eurotik


10
hilabete
199 eurotik

Eroski Red Visa eta Eroski Club Mastercard kartekin 2017ko irailaren 30era arte eskaintza eta Santander Consumer Financia SA enpresak onartu behar diren finantzazioa, testu-liburuetarako.

Eroski diuz lagundutako interesak. Lehenengo lufoa zerbait aldatu ahal izango da bi hamarrenen arabera baliatzen, guztira ordaindutako zerbaita eta finantzatutako zerbaita berriz.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



Labirintoa

Lagundu loraari Bizargorriengana heltzen. Ezker, eskuin, gora, behera nahiz diagonalean mugi daiteke, baina AINGURA, KATALOXA, MAPA edo TXALUPA duten laukietatik bakarrik pasatuz.

Hondartzan

Behean ikusten dituzun zortzi zati hauetatik sei ondoko marrazkitik bertatik hartuak dira. Beste bi, ordea, ez.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

JAIOBERRIAK



Unax Salaberria Madinabeitia
Aretxabaleta. 3,860 kilo.
Abuztuaren 27a.
Gurasoak: Laura eta Beñat. Argazkian, Unax, aitaren besoetan.



Noah Oyarzabal Errasti
Aretxabaleta. 3,760 kilo.
Abuztuaren 23a.
Gurasoak: Aitor eta Maier. Argazkian, Noah txikia, sehaskan lo.



Izar Agirre Fuente
Oñati. 3,140 kilo.
Abuztuaren 16a.
Gurasoak: Usua eta Iosu. Argazkian, Izar, sehaskan lo.



Aimar Igartua Zubia
Oñati. 4,360 kilo.
Abuztuaren 8a.
Gurasoak: Leire eta Urtzi. Argazkian, arreba Maiarekin.



Kerman Etxebarria Zabala
Aretxabaleta. 3 kilo.
Abuztuaren 2a.
Gurasoak: Ane Miren eta Xabi. Argazkian, Kerman, goxo-goxo lo.



Markel Arambarri Foronda
Arrasate. 3,240 kilo.
Uztailaren 27a.
Gurasoak: Ane eta Kepa. Argazkian, Markel, aitaren besoetan.



Lide Urteaga Larrea
Aretxabaleta. 3,800 kilo.
Uztailaren 27a.
Gurasoak: Done eta Jokin. Lide, argazkian, Oxel eta Ekain nebekin.



Izar Goikoetxea Makazaga
Bergara. 3,370 kilo.
Uztailaren 26a.
Gurasoak: Ainhoa eta Ander. Argazkian, Izar, Elene ahizparekin.



Axel Etxezarreta Urzelai
Oñati. 3,700 kilo.
Uztailaren 22a.
Gurasoak: Mireia eta Julen. Argazkian, Axel, aitarekin eta amarekin.



Mikel Segovia Brasa
Arrasate. 3,800 kilo.
Uztailaren 18a.
Gurasoak: Maria. Argazkian, Mikel, amaren besoetan.




Danel Garcia Isasmendi
Eskoriatza. 4,290 kilo.
Uztailaren 18a.
Gurasoak: Leire eta David. Argazkian, Danel, sehaskan lo.



Izar Ezkurra Errasti
Aramaio. 3,100 kilo.
Uztailaren 17a. Gurasoak: Maitane eta Gorka. Argazkian, Izar, amarekin eta ahizpa Uxerekin.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Audi Q2 berria

